

7/1989 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzkoa (BAO Uztailaren 19koa)

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1989ko ekainaren 30eko Osoko Bilkuran, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko 7/89 Foru Araua onetsi dute, eta nik aldarrikatu egin dut eta argitaratu dadila agindu dut. Horren berri eman dut, foru arau hori aplikatu behar zaien herritar guztiek, norbanako nahiz agintari, hura bete eta betearazi dezaten.

7/89 FORU ARAUA, TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA

Ekonomia-Ituneak Kondaira Lurraldeetako Erakunde agintedunei, zerga erregimena zaintzeko, jartzeko eta araupetzeko, aitortzen dien aginpidearen indarrez, Foru Arau honek Trakzio Mekanikozko Ibilgailuei buruzko Zerga araupetu nahi du.

Toki-Ogasunei buruzko Foru Arauak sortu du zerga hau, Udalerrien baliabide-sistema berri bat sortzeko asmotan, hots, ikuspegi materialetik, finantz-autonomia eta nahikotasunezko erizpideak gauzatzeko bide eman dezan sistema bat.

Trakzio Mekanikozko Ibilgailuei buruzko Zerga nahitaezko tributu moduan eratzen da, eta hori indarrean jartzeak Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zerga ezabatzea dakar.

I. KAPITULUA IZAERA ETA EGITATE EZARGARRIA

1. artikulua.

1. Trakzio Mekanikozko Ibilgailuei buruzko Zerga herriko bideetatik zirkulatzeko gai diren era honetako ibilgailuen titulartasuna, edozein delarik berauen mota eta kategoria, kargatzen duen zuzeneko zerga da, zirkulazio-baimenean agertzen den bizilekua Bizkaiko Kondaira Lurraldeko udalerrri bati dagokionean.
2. Zirkulaziorako gai den ibilgailu legeaz ulertuko da, dagokion erregistro publikoan matrikulatua izan dena, berauetan baja egin ez dezan bitartena. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimendunak eta turismo matrikula dutenak ere barrusartzen dira.
3. Ez daude lotura zerga honi:
 - a) Antzintasuna dela eta erregistroan baxa emanda egonik, aparteko kasuetan erakustaldi, lehiaketa eta lasterketetan ibiltzeko baimena jaso lezaketenak, horretara mugaturik daudela.
 - b) Trakzio mekanikodun atoriak eta erdiatoiak, zama erabilgarria 750 kg baino gutxiagokoa dutenak.

II. KAPITULUA SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

2. artikulua.

1. Zerga ordaintzetik salbuetsita daude:
 - a) Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko, Bizkaiko Lurralde Historikoko eta toki erakundeetako herritarren defentsarako edo segurtasunerako ibilgailu ofizialak.

- b) Bestelako herrialdeetako ordezkari diplomatikoen, kontsulbulegoetako kideen, agente diplomatikoen eta kontsul-funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdeko herritarrak badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa. Halaber, Espainiar estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta diplomazi estatutua duten haien funtzionarioak edo kideenak.
- c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.
- d) Anbulantziak eta osasun-laguntzako ibilgailuak, eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.
- e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta desgaitasuna duen pertsona baten izenean matrikulatuta badaude.

Halaber, salbuetsita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak erabiltzeko baizik ez direnak. Salbuespen hau inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, eta aplikatu ere urrituek eurek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei aplikatuko zaie.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondoriotarako, hauexek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

- a') %33 eta %65 bitarteko desgaitasun-gradua onartuta dutela mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak; halakotzat joko dira minusbalotasun gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.
- b') %65eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gupil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

- f) Hiriko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, bederatzia plaza baino gehiago dituztenak, gidaria barne
 - g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.
2. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko e) eta g) letretan azaldutako salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin beharko dute, eta eskabidean ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia adierazi behar dituzte. Salbuespena adierazitakoan, Udal Administrazioak hori frogatzen duen agiria emango du.

Aurreko 1. idatz-zatiko e) letrako bigarren paragrafoan ezarritako salbuespenari dagokionez, interesatuak urritasunaren eta, behar denean, mugitu ezintasunaren ziurtagiria (erakunde eskudunak emana) aurkeztu behar du eta ibilgailua zertarako erabiltzen duen frogatu behar dio Zerga ezartzen dion udalari, eta frogatu ere hark ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera.

III. KAPITULUA SUBJETU PASIBOAK

3. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak zirkulazio baimenean ibilgailua beraien izenean agertzen deneko Bizkaiko Foru tributu Arau Orokorreko 33 artikuluari dagozkion pertsona fisikoak zein juridikoak eta Entitateak dira.

IV. KAPITULUA KUOTA

4. artikulua.

1. Zerga, hurrengo tarifa-koadroaren arabera eskatuko da:

A) Turismoak

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota eurotan
8 zerga-zaldi baino gutxiago	12,62
8-11,99 zerga-zaldi	34,08
12-13,99 zerga-zaldi	60,10
14-15,99 zerga-zaldi	84,14
16-19,99 zerga-zaldi	108,18
20 zerga-zaldi baino gehiago	132,22

B) Autobusak

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota eurotan
21 plazatik beherakoak	83,30
21 plazatik 50era bitartekoak	118,64
50 plazatik aurrerakoak	148,30

C) Kamioiak

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota eurotan
Zama erabilgarriko 1.000 kg.tik beherakoak	42,28
1.000 kg.tik 2.999 kg.ra bitarteko zamakoak	83,30
3.000 kg.tik 9.999 kg.ra bitarteko zamakoak	118,64
9.999 kg.tik aurrerako zama erabilgarrikoak	148,30

D) Traktoreak

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota eurotan
16 zerga-zaldi baino gutxiagokoak	17,67

16-25 zerga-zaldi bitartekoak	27,77
25 zerga-zalditik gorakoak	83,30

E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek daramatzaten atoi eta erdi-atoiak

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota eurotan
Zama erabilgarriko 1.000 kg.tik beherakoak	17,67
1.000 kg.tik 2.999 kg.ra bitarteko zamakoak	27,77
2.999 kg.tik aurrerako zama erabilgarrikoak	83,30

F) Gainerako ibilgailuak

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota eurotan
Ziklomotorrak	4,42
125 z.k.rainoko motozikletak	4,42
125 z.k.tik 250 z.k.ra bitarteko motozikletak	7,57
250 z.k.tik 500 z.k.ra bitarteko motozikletak	15,15
500 z.k.tik 1.000 z.k.ra bitarteko motozikletak	30,29
1.000 z.k.tik aurrerako motozikletak	60,58

2. Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren bidez, kuoten taula aldatu ahal izango da.
3. Erregelamendu bidez zehaztuko da ibilgailu mota bakoitzaren kontzeptua eta tarifak ezartzeko arauak. Zerga honi dagokionez, autokarabanez turismo moduan tributatu dute.
4. Udalek artikuluko honetako 1. idatz-zatian ezarritako kuotak gehitu ahal izango dituzte koefiziente bat aplikatuz; koefizientea 3 izango da gehienez.

Udalek koefiziente bat finka dezakete artikuluko honetako lehenengo idatz-zatian adierazitako tarifen koadroko ibilgailu mota bakoitzerako, bai eta ibilgailu mota bakoitzaren tarte bakoitzerako ere, baina beti ere aurreko paragrafoan finkatutako gehieneko muga gainditu gabe.

5. Udalek, aurreko atalean aipatzen den ahalmena erabiliko ez baldin balute, zerga, aurreko 1. atalean adierazten diren kuoten taularen arabera exigituko da.
6. Ordenantza fiskalek arautu dezakete zergaren kuotan zenbait hobari aplikatzea, kuota hori koefizientea aplikatuz gehituta zein gehitu gabe. Hobariok hauek izango dira:
 - a) 100eko 75era arteko hobaria ibilgailuak kontsumitzen duen erregaiaren arabera, hain zuzen ere, erregaiak ingurugiroan duen eragina kontuan hartuta.
 - b) 100eko 75era arteko hobaria ibilgailuko motorraren ezaugarrien eta motor horiek ingurumenean duten eraginaren arabera. Hobaria 100eko 95era artekoa izan ahal izango da, ibilgailuak motor elektrikoa badu.
 - c) 100eko 100era arteko hobaria ibilgailu historikoentzat edo gutxienez hogeita bost urte dituztenentzat, fabrikazio egunetik zenbatuta, edo, hura ezagutu ezean, ibilgailua

lehenengoz matrikulatu zen egunetik edo, bestela, ibilgailu mota edo modelo hori fabrikatzeari utzi zitzaionetik.

Aurreko letretan aipatutako hobarien gainerako alderdiak, funtsezkoak zein formalak, ordenantza fiskalean arautuko dira.

7. Zerga ordenantzetan zerga kuotaren %90 arteko hoberia —gehituta edo ez— arautu daiteke bost plaza edo gehiagoko ibilgailuetarako, baldin eta titularra indarrean dagoen araudiaren arabera ugaritsua den familia bateko kidea bada.

Zerga ordenantzetan hobari hau aplikatzeko behar diren baldintzak eta betebeharrak arautu daitezke.

V. KAPITULUA EZARRALDIA ETA SORTZAPENA

5. artikulua.

1. Ezarraldia eta egutegiko urtea bat datoz, ibilgailuen lehen eskuraketa edo bajaren kasuetan izan ezik, Kasu hauetan, hurrenez-hurren, ezarraldia eskuraketa egiten den egunean hasi edo Trafikoko Burutzan baja gertatzen den egunean amaituko da.
2. Zerga, ezarraldiaren lehen egunean sortuko da.
3. Zergaren kuotaren zenbatekoa hil naturalen arabera hainbanatuko da, ibilgailuaren lehenengo eskuraketaren edo behin betiko bajaren kasuetan, eta ibilgailuari alta edo baja ematen zaion eguneko hila ere kontuan hartuko da.

Era berean, ibilgailua ostu edo lapurtzeagatik ibilgailuari aldi baterako baja ematen bazaio, haren kuota arestian azaldutako moduan hainbanatuko da, dagozkion erregistro publikoan aldi baterako baja gertatzen den unetik.

4. ...

VI. KAPITULUA KUDEAKETA

6. artikulua.

Ordainerazpena, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, baita tributu kudeaketaren bidez emandako ekintzen azterketa ere, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den bizilekuaren Udalerri dagozkio.

7. artikulua.

1. Udalek, zerga hau autolikidazio erara eskatzeko aukera izango dute.
2. Dagozkion zergabidezko ordenantza fiskaletan, Udalek, zerga ordaindu izatea benetakotzeko tresna mota izango dute..

8. artikulua.

1. Trafikoko Burutzari ibilgailu baten matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasunaren ziurtagiria edo behin betiko baxa eskatzen diotenenk Zerga ordaindu dutela frogatu behar dute. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behi betiko baxa eman nahi bazaio ez dago ezer frogatu beharrik
2. Eginbehar bera dute ibilgailuen titularrek Trafikoko Burutzari berauen berrikuntzaren berri ematen diotenean, zerga honen ondorioetarako sailkapena aldatzen dutenean, baita

transferentzia eta ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den bizilekuaren aldaketak daudenean ere.

3. Trafikoko Burutzek ez dute ibilgailuen baja edo transferentzia espedienterik izapidetuko, aurretiaz zergaren ordainketa benetakotzen ez baldin bada.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.

1. Trakzio Mekanikozko ibilgailuei buruzko Zerga, Bizkaiko Kondaira Lurralde osoan, 1990.eko Urtarrilaren 1etik aurrera exijituko da.

Aurreko atalean esandako data arte, Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Udal Zerga exijitzen jarraituko da.

2. Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga indarrean jarriko denean Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Udal Zergan edozein onura fiskal dutenek, zerga berriari berau irautsi arte edukiko dute eta, edukitzeko epemugarik ez baldin balute, 1992.eko abenduaren 31rate, hau ere barru delarik, luzatuko litzateke gozamen-aldia.

Bigarrena.

Foru Arau honek aipatzen dituen udalerrien egungo tributuen ezabaketa, haren aplikazioaren ondorioa izanik, bai eta tributu horientzat aginduzko diren xedapenen indargabeketa, administrazioak, xedapen horien arabera, aurretik sortutako zorrak exijitzeko duen eskubidearen kalterik gabe ulertzen dira.

INDARGABETZE XEDAPENA

1. Honako Foru Arau hau indarreko bihurtuz gero, berean ezarritakoaren aurka doazen lerrun bereko nahiz beheragoko xedapenak indarririk gabe utziko dira.
2. Aurreko atalean xedatutakoa Foru Arau honen Xedapen Iragankorretan ezarritakoaren kalterik gabe ulertzen da.

AZKEN XEDAPENA

1. Foru Aldundiari baimena ematen zaio, honako Foru Arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.
2. Honako Foru Arau hau "Bizkaiko Herrialdeko Egunkarian" argitaratu biharamonetik bihurtuko da indarreko.

Bilbon, 1989.eko ekainaren 30ean,

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak,.

ANTON AURRE Y ELORRIETA.

Bizkaiko Batzar Nagusietako lehenengo idazkaria,

ROBERTO OTXANDIO IZAGIRRE.